



# Euskalduntzen Alfabetatzen Kultureztatzen

Paulo Agirrebaltzategi

Orain dela zortzi urte, liburu polit bat argitaratu zuten Xabier Kintanak eta Joseba Tobarek: **Euskaldun berriekin euskaraz**. Hainbat euskaldun brriren —gurasoengandik hartu gabe, gero beren erabakiz euskara ikasi dutenen— testigutzak biltzen ditu liburuak. Galde-erantzun erara emanak daude horiek. Euskal kulturaren munduan oso ezaguna den hainbat lagun agertzen da euskaldun berri horien artean. Zoritxarrez, ez zuen oihartzun handirik izan liburu horrek; baina merezi, bai, merezi zuen, nere ustez. Eta gaur ere aipagarria dela uste dut.

Azken urteak arte bi taldetan banatzen genituen euskaldunak: gurasoengandik euskara zekitenak eta “euskaldun berriak”. Euskal kulturaren eta hizkuntzaren egoerari ondo egokitzen

zizaion banaketa hori. Onartutzat jotzen zen, euskara hizkuntza marginala genuela geure Herrian; herri xumeak erabiltzekoa, edota gutxiengo batek lantzekoa.

Giro horretan, bere aldetik euskara ikastea erabakitzen eta benetan ikasten zuena animalai bitxia zen; eta euskaldun xumearen aldetik mirespena eta euskal kulturaren lantzailearengandik eskerrona josatzen zituen.

Xabier Kintanak eta Joseba Tobarek sarrera irakurgarri bat ere egin zioten liburuari, manifestu gira. “Jatorrizko euskaldunaren” eta “euskaldun berriaren” eskema hautsi nahi izan zuten. Azkenean, euskaraz ez zekitenek ikasi behararen eta gurasoengandik bakarrik euskara zekitenek landu behararen aldeko oihuna izan nahi zuen sarrerak. Eta **euskaldun ikasia** zen denentzat eredu: hortxe elkarganetzen ziren ez zekitenak eta gurasoengandik eta lagunengandik bakarrik zekitenak. Euskalduntze-alfabetatze mugimenduaren slogana izan zitekeen —eta izan daiteke— horixe: “Euskaldun ikasia”.

Eredu horren argitan, hirutan banatuko genituzke gure herritarrek, euskarari begira:

- 1.- **Euskaldun “euskalgabea”:** euzkotarra, betela esanda; ez daki euskaraz, ez gurasoengandik —agian inoiz ikasi zuena ahaztu egin zaio—, ez bere aldetik ikasita. Sarritan gainera ez du ikasteko gogorik eta premiarik ere nabari: “euzkotarra” da, baina ez euskalduna.
- 2.- **Euskaldun eskolagabea:** Gurasoengandik edo lagunartean euskaraz ikasia du, lagunartean mintzatzeko moduan; baina ez, irakurtzeko eta idazteko adina. Ez dago euskaraz eskolatua; bere eskola guztia erdaraz hartu du.
- 3.- **Euskaldun eskolatua:** Gurasoengandik hartu izan nahiz nork bere aldetik ikasi izan, hemen garrantzizkoa zera da: hizkuntza —euskara— landua edukitzea. Batzuk “euskalduntzearen” bidea. Baina haiek eta hauek helburu berdinerira iritsi dira: euskara lantzerata eta euskalkun eskolatuak izatera.

Euskaldun eskolatuak aukera egin du bere aldetik: euskara aukeratu du beretzat eta bere Herriarentzat. Bere bizitzako hizkuntza bezala aukeratu du euskara.

Euskaldun berriaren fenomenoak aukera pertsonal horren gainean oina-

rritzen zen. Euskaldun eskolatua, berriz, beste fenomeno sozial baten adierazgarria da: hau da, euskalduntze-alfabetatze fenomenoaren interpretazioa dela esan daiteke. Maila pertsonaletik maila sozialera pasa gara; eta Herri euskaldun baten barruan aukeratzen du norberarentzat ere euskara euskaldun eskolatuak. Berarentzat euskara ez da hizkuntza marginala; ez du izan behar behintzat. Eta saiatuko da bere bizitzarako egin duen aukera, Herri honen historiarako ere izan dadin.

Xabier Kintanaren eta Joseba Tobaren liburuak esperientzia pertsonalak ematen ditu: euskaldun berriaren garaikoak; baina liburuaren sarrera-manifestuak proiektu sozial bat —Herri hau euskalduntzea— aldarrikatu nahi du. Hortxe du bere esanahi osoa norberaren burua euskalduntzeko aukerak ere.

Hortxe kokatu behar da, baita ere, euskararen normalkuntzaren oinarria. Horren normalbideak ez dauka irtenbiderek, maila pertsonal —aukera pertsonal— hutsean oinarritzen bada; arazo nazional bezala hartu behar da, benetan euskara hizkuntza nazionala dela aitortzen badugu eta horixe izatea nahi badugu; eta ez herri xumearen edota euskaldun berri zoro batzuren hizkuntza marginala.

Horrek bi gauza eskatzen ditu: bata, hizkuntzari —euskarari— berari dagokiona; eta bestea “euskaldun eskolatu” bakoitzari dagokiona.

Batetik, euskarak berak trebatu beharra dauka, kulturaren alor guztiak esan eta adierazi ahal izateko; eta maila espezialdu eta teknikoetan ere ibili ahal izateko. Euskal eskolatuaren eginkizuna da, hain zuzen, euskara bera gaurko dulturaratzea: kultur alor eta maila guztietara zabaltzea.

Bestetik —eta aurrekoarekin batera— euskaldun eskolatua izateak zera esan gura du: norberaren kulturaren mailan eta norberaren bizitza osoan euskara egoki erabiltzeko gauza izatea. Benetako euskaldun eskolatuak ez du aski, familiarterako edo lagunarteko bizitzan kultura orokorreko gauzak euskaraz esaten eta ulertzen —eta idazten— jakitea; bere espezialitateko euskara teknikoa eta berezita landu beharra dauka. Horixe da norberaren kultura euskaraz jakitea: nork bere burua euskaraz **kultureztatzea**.

Euskaldun eskolatuak euskaldun kultureztatua esan nahi du. Eta ez da aski alfabetatze-euskalduntze ikastaroak ondo egitea; kultureztatze ikastaroak behar ditu bakoitzak, bere lanbideko eta espezialitateko euskara lantzeko, eta horretaz jabetzeko.